20 38

ANDAZARRATEKO SENDATEGIA

XX. mende erdialdera arte, tuberkulosia nahiko hedatuta zegoen eta zail sendatzen zen gaixotasun bat zen. Hura tratatzeko ohiko gomendioen artean atsedena eta “aire garbia” adierazten zuten.

Ideia horrekin Andazarrateko sendategia sortu zen landa paraje batean, izen bereko mendi portu txiki batean kokatuta, gaur egungo GI-2631 errepideaz baliatuta eta Asteasuko udal mugartearen barruan, nahiz eta hirigune nagusitik, lerro zuzenean, 3 kilometrotara egon.

1928. urtean hasi ziren sendategia eraikitzen, eta 1933ko ekainaren 1ean inauguratu zen,gizonezkoak bakarrik artatzeko, Donostian, emakumeentzako beste sendategi bat existitzen baitzen. Garai horretan ohikoa zenez, hamabost bat Mertzenaria Serora erizaintza-lanez arduratu ziren, hiru sendagilez eta bi praktikantez gain.

Nahiko laukizuzen ziren bi nabe zituen, erdiko gorputz baten inguruan egituratuta. Fatxada nagusian hiru terraza nabarmentzen dira, gaixoak bertan oheratu ahal izateko mendiko aire osasuntsua arnas hartuz.

Estatua, Foru Aldundia eta bertako udalak finantzazioan partaidetza berdinarekin kolaboratzen ziren, hots; bakoitzak 28 pezeta ordaintzen zituen hiru hilez behin gaixo bakoitzarengatik.

Guda zibilaren ondoren, Andazarrateko uztailak 18 Tuberkulosi Aurkako Sendategi izendatu zuten, eta bere horretan mantendu zen 1956. urtera arte. Orduan, itxi zuten eta gaixoak eraikin berri zen Amarako tuberkulosi aurkako sendategira eraman zituzten.

Une horretatik, udal eskola gisa erabili zuten, hala ere, hirigune nagusitik nahiko urrun zegoenez ez zen oso praktikoa, beraz, 1971ean itxi zuten. Hala ere, oraindik hogei urte igaro beharko ziren hura eraitsi arte.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkako Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 570264 m // Y: 4783713 m.



Sendategiko hegoaldeko fatxada. Bertan, logelen terrazak irekitzen ziren. 1943an, argazkia atera zenean, oraindik funtzionamenduan zegoen. Arg. Vicente Martín (Fondo Foto Car) Iturria: Kutxa Fototeka CC by SA.